



**LA SALLEKO SAN JOAN BAUTISTAREN HERIOTZAREN HIRUGARREN MENDEURRENA
ETA ADIN TXIKIKO ETA PERTSONA ZAURGARRIEKIKO GURE KONPROMISOA**

Madril, 2019ko martxoaren 19a

Anai eta Salletar estimatuok:

La Salleko san Joan Bautista gure Fundatzailearen heriotzaren Hirugarren Mendurrena (Reims, 1651 – Ruan, 1719) ari da ospatzen Salletar Familia. Urteurren hau dela-eta gaur egunera arte iristen den leialtasun eta konpromisozko historia ederra konta dezakegu, munduko 79 herrialdetan barreiatu den salletar hezkuntza-sare zabalean, 1.118 hezkuntza-proiektuetan, eta gutxi gora behera 1.040.000 ikasleen ardura duten 95.000 hezitzaileekin.

300 urteko historiak, zalantzarik gabe, askotarako ematen du. Nahiz eta, oro har, gizarteak hezkuntza-misioaren bitartez haur eta gazteen mesedetan egin dugun esfortzu itzela aitortu, historia luze honek ere izan ditu bere itzalak, jokaera desegokiak, adin txikikoen duintasun eta eskubideentzako kaltegarriak, justifikatu ezinak denak. Hauen artean, adin txikikoei eta pertsona zaurgarriei egindako botere eta kontzientzi sexu-abusuak.

Elizan, zeinen kide bizi sentitzen garen eta berarekin bat egiten dugun, gertaera hauei buruz neurriak hartzen hasiak dira, erantzukizunak aitortu eta nork bere gain hartzeko, biktimak erdigunean jartzeko eta prebentzio-politika eraginkorrak garatzeko. Vatikanon otsailaren 21etik 24ra egindako topaketa izan da adierazle argienetako bat. “Adin txikikoen zaintza Elizan”¹ izan du helburu.

Erakunde erlijiosoetan une bereziki konprometigarrian gaude. Erroman Adin txikikoen Zaintzari buruzko topaketa egin aurretik Erlijiosa-buru Orokorren Nazioarteko Batasunak (UISG) eta Erlijioso-buru Orokorren Batasunak (USG) elkarrekin idatzi zuten Adierazpenean² islatu zuten beraien planteamendua.

¹ <http://press.vatican.va/content/salastampa/it/bollettino/pubblico/2019/02/24/0158/00319.html#spa>

² http://www.internationalunionsuperiorsgeneral.org/wp-content/uploads/2019/02/Statement-on-Safeguarding_ES.pdf

Adierazpenaren izenburua honako hau da: “Haurren abusua, gaitz bat garai eta toki orotan: puntu hau ez da negoziagarri”. Geure egin nahi ditugu dokumentu eta konpromiso hauek, beren ondorio guztiekin.

Gai honekiko ardura ez dator adin txikikoei egindako abusuei buruzko albisteak komunikabideetan errepikatzen direlako, ezta gaiak duen gaurkotasunagatik, eta ez du izan nahi erakunde erlijiosoek jasaten duten balizko erasoen defentsa-erantzuna, “gotorleku setiatuaren sindromea” sentituz. Gai honi buruz jarduteko arrazoia askoz harantzago doa, alegia, gure zenbait obretan izandako gertaera oso larriek, ukaezinezkoak, bultzaturik ari gara, geure egin behar ditugunak, diren bezala, eta zeinetatik ikasi behar dugun horrelakorik errepikatu ez dadin.

Halaber, aitortu, entzun eta barkamena eskatu nahi diegu biktimei eta haien familiei, geure erantzukizun pertsonal eta instituzionalari aurre egiteko konpromisoa onartuz eta egindako kaltea, ahal den heinean, erreparatuz.

Orain hogeiren bat urte, Anaien Institutuko eta Salletar Familiako arduradun nagusia zen Anai John Johnston-ek salletarroi idatzi zigun gutun batean honako hau adierazten zuen indar handiz: “Haur pobreen egoera eskandalu ulergaitza da eta gure salletar karismak haur babes gabeko, abandonatu, baztertu eta esplotatuenganako elkertasuna eskatzen digu eta gure misioaren zeregin berezi bat behar du izan” [...] “Milioika neska eta mutil dira sexu-abusuen biktima, askotan abusu fisikoekin batera. Abusu hauen egileak batzuetan, tristea da esatea, beren etxeokak edota lagun minak, irakasleak, apaizak eta erlijiosoak izan ohi dira”³.

Jakin dugu gure hezkuntza-erakundeen esparruan eman ahal izan dela adin txikiko eta pertsona zaurgarrien abusuen errealitate penagarri hau eta gertaera hauek argitara irten direla azken urteotan. Horregatik eskatzen jarraitzen dizuegu gure elkarteetako eta hezkuntza-erakundeetako arduradunoi, oraingo nahiz lehengoei, jakitera eman diezaguzuela esparru honetan zuen ezaguerakoa dena, diskrezio osoz eta jarriak diren kanalez baliatuz. Gure laguntza eskaintzeko asmo garbia adierazten dugu, geure eskura dauden baliabide eta prozeduren bitartez, egia ohoratua izan dadin, dagozkien ikerketetan justiziarekin kolaboratuz eta bere aurrean aurkeztuz, ezinbestekoa denez, ezagutu ditzakegun gertaerak edo denuntziak.

Ongi dakigu gai honek Elizari erasaten diola eta Jainko Herria une zail bat ari dela bizitzen, zalantzas betea, eta batzuetan, sinesgaiztasun eta suminduraz betea. Gu ere, Herri horretako kide izanik, barren-barrendik saminduta aurkitzen gara hurrek eta gazteek jasandako abusuengatik, bereziki gure hezkuntza-erakundeetan egin ahal izan direnengatik, haien ongizate eta giza hezkuntza

³ John JOHNSTON, “Carta Pastoral sobre la defensa de los niños, el reino de Dios y la misión lasaliana”, 16 or. (1999).

zaindu beharrean, hain zuzen. Adierazpen honen bitartez gure elkartasuna berrazaltzen dugu eta bat egiten geure buru-bihotzetan hain astun zaizkigun gertaera hauei positiboki erantzun nahi dien Herri honekin. Horregatik, erreserbarik gabe bat egiten dugu Elizan ematen ari den mentalitate- eta jarrera-aldaketa horrekin, gaitz hau behin betirako errotik ezabatua izan dadin.

Esan berria du Frantzisko Aita Santuak 2019ko otsailaren 24ko hitzaldian honako hau: “Iritsi da ordua elkarrekin lan egin dezagun basakeria horiek (txikiek bizi izandako drama horiek) gure gizaterian errotik ezabatzeko, beharrezko neurriak erabiliz, nazioartean eta eliz mailan jardunean direnak”. Horregatik, konprometitzen gara sormenezkoak izatera abusu hauen kausak ezabatuko dituen kultura sustatzeko eta hauek gizarte egituretan eragiten dituzten aldaketak bultzatzeko, bereziki gure curriculumetan ongi kokatzen diren formazio-esperientzien bitartez; gertaera hauek errepikatzea ekiditen duen kultura eta biziera orekatua eta sanao sustatzeko; pertsonak babestuak sentituko diren kultura eta biziera duina izateko baldintzak; biktimak eta senideak trazarik gabe eta sakontasunez entzunak eta ulertuak izango diren gunek sustatuko dituen kultura; gure eskutan ditugun baliabide guztien bitartez adiskidetzearen eta barkatzearen alde lehiatuko den kultura sustatzeko. Oso egokiak iruditzen zaizkigu Erlijioso eta Erlijiosen Batasunen (USG eta UISG) aipatutako dokumentuak eskaintzen dituen norabideak “babes-kultura” atalean, bereziki Hezkuntza eta Osasuna, Formazioa eta Espiritualtasuna arloetan.

Horregatik, “zero tolerantzia” bermatzeaz harantzago, Hezkuntza Elkarrekin kide guztiak formatzen eta sentiberatzen jarraitu behar dugu eta haiekin loturik diren Salletar Elkarrekin. Jarduneko *Kodigo Etiko* instituzionala jarraitu behar dugu eta abusatutako izan daitezkeenekiko protokoloak abian jarri. Justizi eta solidaritaterako gure hezkuntza-planak berraztertu, abusuen biktimak ere kontuan hartuak izan daitezzen. Sormenez zehaztu behar ditugu eskura ditugun prozedurak adin txikiko eta pertsona zaurgarrientzat gunek seguru eta babestuak eduki ditzagun. Baliabideak abian jarri behar ditugu sortutako kalteak eta haien ondorioak erreparatzeko. Erantzun zehatzen menpe dago gure sinesgarritasuna.

Gure Erakundearen balioen arabera ekimen ezberdinak ari gara garatzen, Barruti osorako, barneko ikerketatik hasi eta protokoloak berrikusteraino eta “zero tolerantziarekiko” gure konpromisoa zehaztuko duten neurriak hartzeraino.

Frantzisko Aita Santuak, 2015eko urriaren 24an, Erromako Anaien Etxeburuan, gizonezkoen kongregazioetako ehundik gorako erlijioso-taldearen aurrean esan zuen honako hau: “Iragana esker onez begiratu” behar dugula, “oraina pasioz bizi” eta “etorkizuna esperantzaz besarkatu”. La Salleko san Joan Bautistaren heriotzaren 300. urtea ospatzerakoan, esker onez begiratzen dugu iragana, baita saminez ere kasu batzuetan adin txikiko eta pertsona zaurgarriei egindako sufrimenduak eraginda; oraina pasioz bizi nahi dugu “haurrak zaindu

eta babestu behar diren altxortzat kontsideratuak izango diren kultura” sustatuz;
eta etorkizuna salletar misioarekiko esperantza eraberrituz besarkatzen dugu.

Senidetasunez,

Anai Jose Roman Perez, FSC
Ikuslari Titularra
Arlep Barrutia